

# Dislexia eta ikasteko gaitasunak

Dislexia izateak ez dakar gainontzeko pertsonak bezain argia ez izatea; beste modu batera ikasten dute dislexia duten pertsonak eta hori ongi dago. Informazioa prozesatzeko eta gogoratzeko denbora gehiago eskatzen du dislexiak. Hori dela eta, azterketetan aparteko denbora behar dute. Gaiak guztiz ezagutu arte behin eta berriz ikastera behartzen ditu epe laburreko memoriak; ezin dute ikasketa azken unerako utzi.

Irakurketan eta idazketan eragiten duten zailtasun berek eragiten dute antolaketarako gaitasunetan; esaterako, denboraren kudeaketan, ideien antolaketan eta lanaren egituraketan.

## Ikasketarako zenbait gomendio:

- Irakasgai bakoitzari kolore bat egokitu.
- Ohar itsasgarriak erabili apunteak laburtzeko (esaldi motz bat edota marrazki bat lagungarriak izan daitezke).
- Ikusi ea eguneko zein ordutan egiten duzun lan ondoen.
- Arreta galarazten dizun ororen zerrenda egin, baita horiek saihesteko moduena ere.
- Gutxi eta maiz ikasi, 10 edo 20 minutuko tartetan.
- Zure oharrak ulertzen ez badituzu, saiatu Google-en erantzun simple bat bilatzen.

## Aurki itzazu ikas-estilo gustokoenak –bisuala, entzutezkoa edo kinestesikoa- eta erabil itzazu zuretzat egokienak direnak

### Ikas-estiloak

- **Bisuala.** Koloreak, mapa mentalak, karikaturak/txontxongiloak.
- **Entzutezkoa.** Grabatu zure apunteak, erabili testu-ahots softwarea, ozenki ikasi edota eztabaidatu norbaitekin.
- **Zinestetikoa.** Eskuz idatzi edo tekleatu zure apunteak: antzeztu istorio bat; mugi zaitez; ekin lanari; ahalegindu gauzak praktikoak izan daitezzen.

## Aurki itzazu ikas-estilo gustokoenak –bisuala, entzutezkoa edo kinestesikoa- eta erabil itzazu zuretzat egokienak direnak

- Sinplifikatu: oinarrikoenetik hasi eta eraiki zure ulermena.
- Murriztu zure apunteak.
- Idatzi gakoak txartel batean. Marrazki bat egin txartelaren bestaldean, errazago oroi dezazun. Egiaztatu zenbat dakizun.
- Jar ezazu arreta ez dakizun horretan – ipini dakizuna albo batean. Horretarako, erabil ezazu mapa mentala.
- Saiatu mapa mentala buruz marrazten – egiaztatu zer ahaztu zaizun, horretan zentratzeko.
- Egin froga. Erabili mapa mentalak azterketa zaharretako galderen erantzunak planifikatzeko.
- Begiratu bat egin azterketa eredu zaharrei eta informa zaitetz zenbat galdera erantzun behar dituzun jakitzeko (galdetu irakasleari edo tutoreari).
- Aztertu galderaren atal bakoitza eta azpimarratu atazaren gako-hitzak, galdetu dizutenaren mugak eta arloa.
- Burua hutsik gelditzen bazaizu, marraztu karikatura bat edo mapa mental bat eta utzi tarte bat, ahaztu zaizun hori gogora dezakezu lasaitzen zarenean.
- Galde iezaiozu zeure buruari –Zer, Non, Zergatik, Nor, Non, Zein eta Nola- eta erantzun motza eman horietako bakoitzari, ea horrek zerbait ekartzen dizun gogora.

### Informazio gehiago

**Dyslexia Scotland-en beste zantxait gida ([www.dyslexiascotland.org.uk/our-leaflets](http://www.dyslexiascotland.org.uk/our-leaflets)**

**helbidean eskura daitezke)**

- Dyslexia: A Guide for Students
- What is Dyslexia?
- Mindmapping

**Liburu baliagarriak:**

- Studying with Dyslexia by Janet Godwin
- Study Skills for Students with Dyslexia by Sandra Hargreaves
- The Study Skills toolkit for Students with Dyslexia by Monica Gribben
- Advanced Study Skills Christine Ostler and Frances Ward
- The Study Skills Handbook by Stella Cottrell

**Web-orrialde baliagarriak**

- <http://dyslexystudyskills.group.shef.ac.uk/>
- [www.brainhe.com/index.html](http://www.brainhe.com/index.html)
- Dyslexia Scotland Helpline 0344 800 8484 or [helpline@dyslexiascotland.org.uk](mailto:helpline@dyslexiascotland.org.uk)